

# GOBERNANTZA EREDUA

## 3. KONPROMISOA - HERRITARREN PARTE HARTZERAKO ILABA

8. saioaren ondoren beharrezko ikusi dugu bileran partekatutako iritzietan sakontzeko aukera eskaintzea, eta horretarako, galdetegi hau erantzutea proposatzen dizuegu. Ariketa honek gobernantza ereduaren lehenengo proposamenak sortu zituen adostasun eta desadostasunetan sakontzea du helburu, eta berauek modu pausatuago batean adieraztea.

**1/ Uste duzu beharrezkoa dela gobernantza proposamenaren oinarrian dagoen eredia berrikustea, ala nahikoa izango litzateke zenbait alderdi moldatu eta fintzea?**

**2/ Proposatutako ereduaren inguruak dudak badituzu,**

- Zein kontu dira duda gehien sorrarazten dizkizutenak? Zehaztu eta garatu zure erantzuna (kide izatearen ingurukoak, erabakiak hartzeko prozedura, lan-banaketa, egitura, gardentasuna etab.)
- Zure ustez, zein norabidetan bideratu beharko litzateke proposamen berria zalantzak dituzun alderdi horiei dagokienez?

**3/ Eredua positiboki baloratzen baduzu,**

- Zer alderditan esango zenuke daudela ereduaren indarguneak? Zer baloratzen duzu positiboago? Zehaztu eta garatu zure erantzuna (kide izatearen ingurukoak, erabakiak hartzeko prozedura, lan-banaketa, egitura, gardentasuna etab.)

**4/ Proposamenean aldaketa puntualak egitea beharrezkotzat jotzen baduzu,**

- Zein ataletan daude zehaztu eta hobetu beharreko alderdi horiek? Zeri egiten diote erreferentzia?

**5/ Ereduak proposatzen du eragile-kideen eskubideak eta betebeharrak agente tipologiaren artean bereizketarik egin gabe banatzea (herritarra, instituzionala eta aditua).**

- Hala izan behar duela uste duzu?
- Ezetz uste baduzu, eta eskubideen eta betebeharren definizioan sakondu behar dela uste baduzu, agente motak bereiziz, zertan oinarritu beharko lirateke desberdintasun horiek?